

1.Ziklorako APP desberdinak

APP-S EN EUSKERA PARA EL 1º CICLO

Ipuin interaktiboak

- **Ipuinlari** [[Android](#) / [iOS](#)] Ipuinlari, ipuinak sortzeko tresna da. Etxeko umeek erabili dezakete ipuinak sortzeko bere ahotsekin, irudiekin eta haiek aukeratutako kontaerekin. Ipuina sortu eta gero tartekatu ahal izango dute bere lagun eta senidekoekin.

<https://sustatu.eus/ekintech/1451944838>

- **Lehoiak ametsetan** [[Android](#) / [iOS](#)] Euskaltzaleen Topaguneak sortua. Haurren eta gurasoen artean euskararen erabilera handitu eta esperientzia positiboak euskaraz eskaintzeko asmotan bat egin dugu Topaguneak eta Athletic Club Fundazioak. Athletic Cluben eta kirolaren balore positiboak oinarritzat hartuta, hainbat ipuin idatzi ditu Kirmen Uribe idazleak. Ilustrazioak Asisko Urmenetak egin ditu. Liburutegi bat osatu dugu, ipuinez ipuinosatzen joan dena.

[Hemendik deskargatu](#)

- **Txo Errealitate Areagotuan** [[Android](#) / [iOS](#)] App honek Roke Etxaberen *Arpola* istorioa irudikatzen du 3 dimentsiotan. Irudi konkretu bat antzematean, Irrien Lagunen pertsonaia nagusiak azalduko dira. 2014ko urtarrilaren Irria aldizkarian azaldutako istorioa errealitate areagotuan. Aurkitu Porrotx, Pirritx, Marimotox eta Txol!

[Hemendik deskargatu](#)

Euskara hizkuntza lantzeko:

- **Ikasordena** [[Android](#) / [iOS](#)]

Ikasordena jolas hezigarria da, 6 eta 8 urte arteko haurrek abezedarioko letrak identifikatu ditzaten eta euskarazko ohiko hitzak letraz letra esaten ikas dezaten.

<http://ikastek.net/aplikazioak/umeentzako/ikasordena/>

Ikastek suiteko haurrentzako gainerako aplikazio mugikorrak bezala, jolas honetarako oinarritzko euskara maila behar da.

- **Ikasesteka** [[Android](#) / [iOS](#)]

Umeek bere lehenengo urratsak euskaraz eman ditzaten aplikazio mugikorra. Oso joko erraza da, txikienengan pentsatuta: pantaila ukitu besterik ez dute egin behar marrazkiak hitzekin lotzeko eta horrela bere hiztegia handitu sail ezberdinetan.

<http://ikastek.net/aplikazioak/umeentzako/ikasesteka/>

- **Ikaszopa** [[Android](#) / [iOS](#)]

Umeak era dibertigarri eta errazean euskara ikas dezaten aplikazio mugikorra: adina eta hiztegi mailara egokitzen den hizki zopan, eguneroko hitzak bilatu behar dituzte.

<http://ikastek.net/aplikazioak/umeentzako/ikazopa/>

- **Zer da zer?** [[Android](#) / [iOS](#)]

Zer da zer?Joko klasiko baten bertsio berritua, bakarka edo beste jokalaria batzuen kontra erabil daitekeena. Irudi misteriotsuak eskaintzen duena zer edo nor den asmatzea da jokoaren helburua, galderak eginez erantzuna ikertuz. Pertsonaia, leku eta abarrei buruzko galderak egin daitezke eta aukera okerrak baztertuz burutuko da asmakizuna.

<http://www.playeus.net/es/zerdazer-es>

- [HITZIKI \(Android / IOS\)](#)

Euskerazko hiztegia • 189 hitz • 8 gai

- [IPUIN KLASIKOAK \(Android IOS\)](#)

3 txerritxoak • 4 musikariak • Txanogorritxu • Beldurrik gabeko June

- [IKASITZ \(Android IOS\)](#)

Euskerazko hiztegia ikasteko jokia

Natur Zientziak

- **Natur Zientziak (elikagaiak eta osasuna)**

[Lurren pastela](#) [[Android](#) / [iOS](#)]

Lurren urtebetetzea da eta tartarik onena egin behar dute.

Lurrekin Eatvillera joan zaitez, amonaren tartarentzat osagai onenak bilatzeko, bere errezetaren arabera. Lagun berriak egingo dituzu, produktu onenak aukeratzen lagunduko dizutenak; horrela arduraz elikatzen ikasiko duzu.

Eatvillen denak elikagaien inguruko adituak dira, eta guztiek produktu organiko eta jasangarriak ekoizten dituzte!

Sei kapituluetan elikagai jasangarrien kateari buruzko istorio labur bat kontatzen dute , hala nola: urtaroko barazkien jatorria; ekoizpen eta banaketa prozesuek ingurumenarengan eta gizartearengan duten eragina; eta aukera arduratsua produktuak erosteko orduan.

- EAThink Game euskaraz [[Android](#) / [iOS](#)]

<https://iparra.eus/eathink-game-euskaraz/>

Elikagaien inguruan gehiago ikasi ezazu, baratzetik platerera daukan bidea modu dibertigarri eta interaktibo batean.

Eathink jolasa hiru ataletan dago banandua, bakoitzak elikagai katearen oinarrizko hiru pausoetan zatiturik; ekoizpena, banaketa eta erosketa.

Atal bakoitzak sei zailtasun maila ezberdineko berezko jolasak ditu, gure elikadura-ohiturek eta elikadura-kateek planetarengan duten eraginaren inguruan sentsibilizatzeko atal tematiko batzuekin.

Hiru jolasek gure pisua nola arindu dezakegun ulertzen lagunduko digute, horrela globo aerostatikoak altu hegan egin dezan!


- Natur Zientzia Giza gorputza [[Android](#) / [iOS](#)]

<https://sarea.eus/aplikazioa/giza-gorputza-2>

Anatomia ikasteko baliagarriak diren sei joko ezberdin eskaintzen ditu. Honela, modu erakargarri batean erabiltzaileak hezur, muskulu, organo, aparatu eta abar izendatzen, ezagutzen eta kontzeptuekin erlazionatzen ikasiko du.

KONZENTRAZIOA LANTZEKO.

Duela gutxi [aurkeztu](#) [genizuen Irudikon aplikazioa](#), arreta-defizitari lotutako arazoak dituzten umeei laguntzeko joko bat. Gaur, berriz, [Behatzen](#) dakarkizuegu. Aplikazio honek antzeko helburua du, kontzentrazioa lantzearena, eta hiru joko ditu aipatu esparrua lantzeko. Azken hori ere Android zein iOS gailuetan instalatu daiteke.



Lehenengoak, *Errepikatuta* izenekoak, irudi bat errepikatuta duen sorta bat dakar. Errepikatutako irudia zein den asmatu ahala, irudi-kopurua handitu egingo da, eta, aldi berean, errepikatutako irudia antzemateko kontzentrazio-denbora ere proportzionalki luzatuko da.

Berria ere pertsonalizatuta dago, eta ehunka irudi erakusten dizkigu: horien artean berria zein den sumatu behar dugu. Aurreko jokoan bezalaxe, irudi berriak igarri ahala, irudi-kopurua eta zailtasuna areagotu egiten dira.

Faltan jokoak, azkenik, irudi-kopuru bat eta dagozkien testuak erakusten dizkigu, baina testu horietako bat falta da eta zein den antzeman behar dugu.

Behatzen eskuragarri dago bai iOS bai Android sistema eragileetan, <http://www.adimenlabs.net/behatzen/>.

**AUKERAKETA HAU 1.ZIKLOKO KOORDINATZAILEAK PRESTATU DU
(SAIOA GUARROTXENA)**

***SELECCIÓN PREPARADA POR LA COORDINADORA DEL 1º CICLO (SAIOA
GUARROTXENA)***